



EBAZPENA, 2010EKO ABENDUAREN 10EKOA, BULEGO JUDIZIAL ETA FISKALAREN ZUZENDARIARENA, DESTINOA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DAUKATEN JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOEN LIZENTZIA - ETA BAIMEN-MOTEI ETA HARTZEKO MODUEI BURUZKOA.

Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatzen duen 19/2003 Lege Organikoa indarrean sartu ondoren, eta 505.1 artikuluari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio destinoa autonomia-erkidego honen lurralde-eremuan daukaten Justizia Administraziooko langileen lizentzia eta baimenak hartzeko moduak nahiz baimen eta lizentzia horiek emateko prozedura ezartzeko arauak ematea.

Adierazitako lege organikoaren 452.3 artikulua ezartzen du idazkari judizialen zereginetako bat autonomia-erkidegoko organo eskudunarekin lankidetzan aritzea dela, autonomia-erkidegoak baliabide pertsonalen eta materialen arloan betetzen dituen funtzioak eraginkorrak izan daitezen. Lankidetzan horren inguruan, gobernu-idazkaritzei zuzendutako komunikazioa egin zuen Justizia Ministerioak 2004ko urtarrilaren 26an. Bertan, lankidetzan horren hainbat alderdi daude zehaztuta. Esate baterako, Justizia Administraziooko langileak gaixotzen direnean horren jakinarazpena egin beharra dagoela eman beharreko baimenak emateko, eta funtzionario titular nahiz bitartekoek e skatutako baimen edo lizentziak bulego judizialean absentziarik eraginez gero zerbitzuko beharrianak aztertu eta ordezkioak ekartzeko aldeko txostena eman beharra dagoela, betiere ebazpen honek ezartzen dituen kasuetan.

Ebazpen honen helburua, lizentzia eta baimenak hartzeko modua eta emateko prozedura ezartzeko behar den gutxieneko arautegia ezartzea da, horretarako irizpide orokorrak eta kasuan kasurako irizpide espezifikoak ezarriz. Bestalde, ebazpenaren edukia aurretik sindikatuekin negoziatu eta erabaki da negoziazio-mahaian, abuztuaren 31ko 223/2010 Dekretuan (2010/09/14ko EHAA, 177 zk.) bilduta dauden lan-baldintzen etorkizuneko akordio globalaren zati gisa (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administraziooko Funtzionarioak Euskal Administrazio Orokorreko funtzionarioekin nola parekatu arautzeko eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren eta CC.OO., ELA, CSI/CSIF, LAB eta UGT sindikatuen artean Bulego Judizial eta Fiskala ezartzeko IV. Akordioa onartzen du dekretu horrek).

Horiek horrela, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuari jarraituz, hauxe ebatzidut:

I.- APLIKAZIO-EREMUA

Euskal Autonomia Erkidegoan lanean ari diren Justizia Administraziooko kidego hauetako funtzionario guztiei aplikatuko zaie ebazpen hau: Auzitegiko Medikuen Kidegoa, Laborategiko Laguntzaileen Kidegoa, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoa, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoa, Laguntza Judizialeko Kidegoa eta abenduaren 26ko 19/2003 Lege Organikoaren laugarren xedapen gehigarriak zehazten dituen desagertu beharreko eskalak.

II.- LIZENTZIA- ETA BAIMEN-EGUNAK EMAN AHAL IZATEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

Lizentzia eta baimenekin har daitezkeen lanegunak, nahitaez, li bre hartzeko gertaerak gertatzen diren egunetan hartu beharko dira, berariaz beste aukerarik finkatzen ez bada.

Hortaz, lizentzia edo baimena hasiko den eguna lizentzia edo baimen hori ematea eragin duen gertakariaren egun bera edota hurrengo laneguna izango da (esanbidez lanegunetan finkatutako lizentziak edo baimenak diren kasuetan).

Baimena edo lizentzia egun batetik gorakoa den kasuetan, bestalde, egunak bata bestearen atzetik hartu beharko dira, segidan.

Astelehenetik ostiralera artekoak dira lanegunak, jai tokatzen direnak izan ezik. Guardia-zerbitzu bereziak egin beharreko egutegiko egun guztiak ere laneguntzat jotzen dira ondorio hauetarako.

III.- ERREKURTSOEN PROZEDURA ETA ERREGIMENA

Errekurtsoen prozedura eta erregimena honako hauetan xedatu takoaren arabera izango da: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta Justizia Administrazioaren zerbitzura lan egiten duten langileen kudeaketa-prozeduretarako arauak 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeari egokitzeko abuztuaren 5eko 1765/1994 Errege Dekretua.

IV.- LIZENTZIAK ETA BAIMENAK EMATEKO ORGANO ESKUDUNA

Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariak du lizentziak eta baimenak emateko eskumena, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 12. artikulua, hain zuzen ere Justizia Administrazioko langileen gaitan Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzaren egitekoak ezartzen dituenak, xedatutakoari jarraiki.

Era berean, zuzendaritza horri dagokio lizentziak eta baimenak emateko interpretazio-irizpideak jartzea, baita arauak hitzez hitz diotenaz haratago ere, betiere indarrean dagoen araudiarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrentzat ezarritako irizpideekin bat etorritik.

V.- ESKABIDEAK IZAPIDETZEA

Norberaren gauzetarako, norberaren aukerako egunak hartzeko, bataio eta jaunartzeetara joateko, bizilekuz aldatzeagatiko eta lanaldia murrizteko (edozein murrizketa -mota) baimen-eskaerak; prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak egiteko, kongresu, mintegi, sinposio, topaketa, eztabaida-saio, solasaldi, hitzaldi, bilera, jardunaldi eta bestelako talde-ekitaldi zientifiko, tekniko edo profesional etara joateko lizentzia-eskaerak; nahiz norberaren beharretarako edozein motatako lizentzia-eskaerak Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzara bidali behar dira, faxez (945.019152 zenbakira) edo posta elektronikoz (rechum@AJU.ej-gv.es helbidera), lizentzia edo baimena hartu baino gutxienez 10 egun lehenago eta ebazpen honekin batera doan eredu erabiliz.

Eskabidearekin batera, Bulego Judizial eta Fiskaleko arduradunak aurretik egindako txostena eta lizentzia edo baimena emateko beharrezkoak diren datu guztiak bidali behar dira.

Eskabideak izapidetu ondoren, eskatutakoa eman edo ukatzeko erabakia hartuko du Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzak eta faxez jakinaraziko zaio interesdunari, lizentzia edo baimenaren eguna baino lehenago, eskaera eragin duen arrazoa egiaztatu behar den kasuetan izan ezik. Kasu horietan, Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzak dokumentazioa ebaluatu ondoren egingo da jakinarazpena. Kasu guzti-guztietan, zerbitzuaren beharrak behar bezala beteta uztearen baldintzarekin emango dira baimen eta lizentziak.

Seme/alabaren jaiotza, aitatasuna, ahaidearen gaixotasun larri edo ospitaleratzea, edo ahaidearen heriotza gertatzen denean, edo langileek medikuaren kontsulta, tratamendu eta azterketetara joateko baimena edo gaixotasun-lizentzia eskatu nahi dutenean, absentzia gertatzen den egunean bertan jakinarazi behar diote bulego edo zerbitzu judizialaren arduradunari lizentzia edo baimenaren arrazoa eta, egun hori egun baliogabea bada, hurrengo lanegunean. Gero, absentzia eragin duen gertakaria izan den egunetik egutegiko hamar eguneko gehieneko epean —berariaz bestelakorik ezartzen ez bada—, Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzari bidali beharko zaio eskabidea, faxez (945.019152 zenbakira) edo posta elektronikoz (rechum@AJU.ej-gv.es helbidera). Eskabidearekin batera, ziurtagiriak ere bidali beharko dira.

Gainontzeko kasuetan, hau da, seme edo alaba hartu edo adoptatzeagatiko baimena, edoskitze-baimena, zeregin sindikalak, prestakuntza sindikalekoak edo langileak ordezkatzekoak egiteko baimena, zentro ofizialetan azken azterketak eta gainontzeko behin betiko gaitasun- eta ebaluazio-probak egiteko baimena, betebeharrak publiko edo pribatu saihestezinak egiteko ezinbestekoa den denbora hartzeko baimena, hautetsi-karguaren zereginak betetzeko baimena, gaixotasun kronikoak edo mugitzeko arazoak dituzten ahaideak zaintzeko baimena, edo norberaren edo ahaideen ezkontzagatiko lizentzia eskatu nahi denean, langileek Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzari bidali beharko dute eskabidea, faxez (945.019152 zenbakira bidaliz) edo posta elektronikoz (rechum@AJU.ej-gv.es helbidera bidaliz). Baimen edo lizentzia hartu baino gutxienez hamar egun lehenago bidali beharko dute eskabidea —ebazpen honek berariaz bestelako epe bat ezartzen ez bada eta betiere bulego edo zerbitzu judizialaren arduradunari aurretik jakinarazita—, eta hala ezarrita dagoen kasuetan txostenarekin batera. Justifikagiriak egiaztatzeko baldintzapean emango dira baimen eta lizentziak.

Bestalde, oporren eta gehiegizko orduengatiko baimenen eskaera indibidualak izapidetzeko ere erabiliko da eredia, aipatutako eskubide horientzako ezarrita dagoen arautegian ezarrita dauden betekizun, hartzeko modu eta gainontzeko baldintzei kalterik egin gabe.

VI.- UKATZEA, ETETEA ETA BALIOGABETZEA

Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzak baimen eta lizentzia guztiak ukatu ahal izango ditu, lortutako datuen bidez lizentzia eta baimen horien beharra behar bezala justifikatzen ez bada (justifikazioa nahitaezkoa denean), ebazpen honetan ezarritako epeak betetzen ez direnean, edo eskabidearekin batera bulego edo zerbitzu judizialak egindako aldeko txostena aurkezten ez denean (txosten hori nahitaezkoa denean).

Eskatutako baimena edo lizentzia ukatzea eta baimena baimendutako aldietatik kanpo baliatzea justifikatu gabeko laneko hutsegitetzat hartuko da eta, ondorioz, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoko 500.6 artikulua araberako deskontua egingo da nominan. Horrez gain, diziplinazko erantzukizuna eskatuko da ordutegia ez betetzeagatik.

Behar bezala arrazoitutako aparteko zirkunstantziak eskatzen dutenean, lizentziak edo baimenak eten edo baliogabetu ahal izango dira, gaixotasu nagatik, amatasunagatik eta

adopzioagatik emandako lizentziak izan ezik. Kasu horretan, lantokira berehala itzultzeko agindua emango zaie lizentziak edo baimenak hartu dituzten funtzionarioei.

VII.- LIZENTZIEN ETA BAIMENEN ARTEKO BATERAEZINTASUNA

Ezin izango da lizentzia- eta baimen-mota bat baino gehiago aldi berean hartu. Printzipio orokor horretatik salbuetsita daude edoskitzerako etenaldia eta lanaldia murrizteko baimenak; horiek bateragarriak izango dira gainontzeko lizentzia eta baimenekin, bateraezinak direla berariaz ezartzen ez den bitartean. Arauzko oporraldietan ere ezin izango da ordaindutako lizentzia edo baimen ordaindurik hartu.

VIII.- LIZENTZIA ETA BAIMENEN ETA GUARDIA-ZERBITZUA EMATEAREN ARTEKO BATERAEZINTASUNA

Edonolako lizentzia edo baimena baliatzen den bitartean ezin izango da guardia-zerbitzurik egin. Halere, lizentzia edo baimena onartu zaion langileari guardia-taldean sartzeko eskatzen bazaio, eta beraz, zerbitzu hori ematera derrigortzen badute, lizentzia edo baimena baliogabetuko zaio langile horri, zerbitzu-premietan oinarrituz, eta horrela, guardia erabat beteko dela bermatuko da.

Salbuespen gisa, aurreikusi ezin diren kausa jakinek eragindako lizentzia eta baimenek beren eraginkortasunari eutsiko diote, eta horrelako kasuetan, kausa horiek guardia-zerbitzua ematen ari den unean gertatzen badira, guardia partzialki egin ahal izango du langileak, eta proportziozko zenbatekoa ordainduko zaio.

IX.- LEKUALDATZE-LEHIAKETAK, ETA BAIMENAK ETA LIZENTZIAK HARTZEA

Interesdunei ematen zaizkien baimenak eta lizentziak (oporrek barne) bukatzen direnean hasiko da lanpostuaz jabetzeko epeen zenbaketa.

Lanpostuaz jabetzeko epeak hasi badira, langileak ezin izango du baimen, lizentzia edo oporrik hartu. Salbuespen gisa, lizentzia edo baimen baten jatorria lanpostuaz jabetzea galarazten duen kausaren bat bada (gaixotasuna, amatasuna), lizentzia edo baimen horiek eraginkortasunari eutsiko diote, eta horrelako kasuetan, lanpostuaz jabetzeko epea bukatu egingo da horiek baliatzeagatik.

X.- LIZENTZIA EDO BAIMENAREKIN EGON BITARTEAN EGITEN DIREN KARGU - UZTEAK

Funtzionarioak bere lanpostua utziz gero, une horretan baliatzen ari den lizentzia edo baimena —Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzak baimendu duena—bukatu egingo da.

XI.- BAIMENAK:

Baimenak, 1. idatz-zatian aipatzen dena izan ezik, ondoren adierazten diren arrazoi justifikatuengatik bakarrik emango dira:

- 1.- Norberaren gauzetarako baimena
- 2.- Norberaren aukerako egunak
- 3.- Seme edo alaba jaiotzeagatik baimena
- 4.- Seme edo alaba hartu edo adoptatzeagatik baimena
- 5.- Edoskitze-baimena
- 6.- Aitatasun-baimena
- 7.- Bataio eta jaunartzeetara joateko baimena

- 8.- Ahaideen gaixotasun larri edo ospitaleratzeagatiko baimena
- 9.- Ahaideen heriotzagatiko baimena
- 10.- Bizilekuz aldatzeagatiko baimena
- 11.- Zeregin sindikalak, prestakuntza sindikalekoak edo langileak ordezkatzekoak egiteko baimena
- 12.- Zentro ofizialetan azken azterketak eta gainontzeko behin betiko gaitasun - eta ebaluazio-probak egiteko baimena
- 13.- Medikuaren kontsulta, tratamendu eta azterketetara joateko baimena
- 14.- Betebehar publiko edo pertsonal saihestezinak egiteko ezinbestekoa den denbora hartzeko baimena.
- 15.- Hautetsi-karguaren zereginak betetzeko baimena
- 16.- Gaixotasun kronikoak edo mugitzeko arazoak dituzten ahaideak zaintzeko baimena
- 17.- Lanaldia murrizteko baimena:
 - 17.1.- Legezko zaintzari lotutako arrazoiengatik
 - 17.2.- Lehen mailako ahaideen gaixotasun oso larria rengatik
 - 17.3.- Aurre-erretiroarengatik
 - 17.4.- Funtzionarioek osatzeko duten beharrarengatik
 - 17.5.- Norberaren interesagatik
 - 17.6.- Hautapenezko kargua izateagatik dagozkion zereginak betetzeko
 - 17.7.- Ikasketa ofizialak egiteko.

1.- NORBERAREN GAUZETARAKO BAIMENA

Funtzionarioek norberaren gauzetarako baimenarekin urtean zehar gehienez bederatzi egun hartu ditzakete justifikatu gabe. Langilearen benetako zerbitzualdia urtetik beherakoa bada, ordea, dagozkion parte proportzionala hartzeko eskubidea izango du.

Betetako lan-ordu guztien batuketa joko da benetako zerbitzualditzat. Hortaz, proportzionaltasuna bi kasu hauetan aplikatuko da: funtzionarioek egutegiko urte osoko lana betetzen ez dutenean, eta urte osoan lan egin arren lanaldi -murrizketarako baimena daukatenean. Azken kasu horretan, baimen-egunen baimenaldia bat etorriko da baimena eragin duen aldian egindako benetako lanaldiarekin.

Baimenak izapidetzeko, zerbitzuko beharrizanei buruz bulego edo zerbitzu judizialaren arduradunak aurretik egindako txostena behar da, eta baiezkoa emateko, beharria n horiek behar bezala beteta utzi behar dira.

Baimen hau eta norberaren aukerako baimena hartzeko epea baimen-eskubidea sortu den urteko urtarrilaren 16tik hurrengo urteko urtarrilaren 15era artekoa da, urtero onartzen den lan-egutegiak bestelakorik ezartzen ez baldin badu behintzat. Hau da, 2011ri dagozkion egunak 2011ko urtarrilaren 16tik 2012ko urtarrilaren 15era hartu ahal izango dira, eta horrela urtero.

2.- NORBERAREN AUKERAKO EGUNAK:

Funtzionarioek, norberaren aukerako bi egun hartzeko eskubidea izango dute seigarren hiru urtekoa betetakoan, eta zortzigarren hiru urteko aurrera eskubide horri egun bat gehiago erantsiko zaio betetako hiru urteko bakoitzeko. Hortaz, zazpigarren hiru urtekoak ez du egun gehigarririk izateko eskubiderik ematen. Norberaren aukerako egun horiek hiru urtekoak osatu eta hurrengo egunetik aurrera baliatu ahal izango dira.

Horiek izapidetzeko, zerbitzuko beharrianei buruz bulego edo zerbitzu judizialaren arduradunak aurretik egindako txostena behar da, eta baiezkoa emateko, beharriaz horiek behar bezala beteta utzi behar dira.

3.- SEME EDO ALABA JAIOTZEAGATIKO BAIMENA.

Erditzeagatik, Justizia Administrazioako funtzionarioek, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, hemezortzi asteko erditzeagatik baimena hartzeko eskubidea izango dute. Seme/alabak desgaitasunen bat badu, baimena bi astez luzatu ahal izango da. Erditze anizkoitzen kasuan ere, bigarren seme/alabatik aurrera baimena bi astez luzatu ahal izango da seme/alaba bakoitzeko. Baimen hau hartzeko, jaiotza-agiriaren edo familia-liburuaren fotokopia aurkeztu behar da.

Erditzearen ondorengo sei asteak atsedean hartzeko derrigorrezkoak dira eta, hortaz, ezin dira aukeratu. Gainontzeko asteak, funtzionarioak aukeratu ditzake, baina beti gainontzeko baimen-zatia hautsi gabe, erditzearen aurretik edo/eta ondoren. Beste aukera bat ere badago: baimenaren zati bat beste gurasoari uztea, hark amarekin batera edo ondoren hartzeko. Aukera hori baliatuz gero, baimen-aldien batuketak ezin izango ditu gainditu ezarritako hemezortzi asteak edo erditze anizkoitzarengatik dagozkion asteak. Azken aukera hori, erditzeagatik baimena hasten den egunean jakinarazi behar du umea izan duen funtzionarioak. Nolanahi ere, aukera hori automatikoki baliogabetuta geldituko da, lanera itzuli beharreko unean itzultzea amaren osasunerako arriskutsua baldin bada.

Oporraldia erditzeagatik baimenari erantsi dakioko, oporrei dagokien egutegiko urtea bukatu bada ere. Baldintza bakarra, baimenaren segidan, etenik egin gabe, hartzea da.

Bestalde, seme edo alaba jaiotzeagatik baimenak lanaldi osoak edo lanaldi partzialekoak izango dira (umea izan duen funtzionarioak eskatzen duen moduan), betiere zerbitzuaren beharrek aukera ematen badute, Lana eta familia bateragarri egiteko neurriei buruzko urtarrilaren 30eko 180/2004 Errege Dekretuan xedatutakoaren baldintzen arabera.

Baimenaren aldi osoa agortu ondoren lanera normal itzultzea eragozten dion koadro klinikoa erakusten badu emakume langileak, aldi baterako ezintasuneko baja-egoerara pasatuko da; baina, horretarako, behar diren izapideak bete beharko ditu. Ama hiltzen bada, beste gurasoak baimen osoa hartu ahal izango du, edo, hala dagokionean, lizentzia bukatzeko geratzen den denbora.

Erditze goiztiarren eta erditzearen ondoren jaioberriak ospitaleratuta jarraitu behar duen kasuetan, erditzearen ondoren amak hartu beharreko sei asteko derrigorrezko atsedenaldira bukatzerakoan ospitaleko alta jasotzen den arte eten ahal izango da baimena. Horretarako, amak edo bestela beste gurasoak berariazko baimena eskatu eta ospitaleko ziurtagiria aurkeztu beharko du. Baimena etenez gero, funtzionarioak bere lanpostura itzuli beharko du, eta ordubetez irteteko eskubidea izango du. Halaber, etenaldiak dirauen bitartean lanaldia murrizteko eskubidea izango du, gehienez bi orduz. Lanaldi-murrizketa hartuz gero, lansariak ere proportzio berean murriztuko zaizkio.

4.- SEME EDO ALABA HARTU EDO ADOPTATZEAGATIKO BAIMENA

2011ko urtarrilaren 1etik aurrera sei urtetik beherako adingabeak adoptatu edo etxean hartuz gero (adopzioaren arako harrera edo harrera iraunkorra izan daiteke), umea urtebetetik gora egongo bada etxean, langileak hemezortzi asteko etenik gabeko baimena hartzeko eskubidea izango du. Adopzio edo harrera anizkoitza eginez gero, bigarren seme/alabatik aurrera baimena bi astez luzatu ahal izango da seme/alaba bakoitzeko. Langileak erabakiko du bi aste horiek noiz hasiko diren, harreraren erabaki administratibo

edo judiziala egiten denetik aurrera edo adopzioa gauzatzeko ebazpen judiziala egiten denetik aurrera. Harrera edo adopzioa egin dela egiaztatzeko, dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Halaber, baimenaren iraupena hemezortzi astekoa izango da 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako sei urtetik gorako adingabeen adopzioaren edo harreraren kasuetan, umeak urtebetetik gora egongo badira etxean eta betiere adingabe horiek ezinduak edo minusbaliatuak badira, edota beren zirkunstantzia eta esperientzia pertsonalen ondorioz, edo atzerritarrak izateagatik, gizarteratzeko eta familian txertatzeko zailtasun bereziak — gizarte-zerbitzu eskudunek behar bezala egiaztatuak — badituzte.

Bi adoptatzaileek lan egiten badute, interesdunek erabakiko dute baimena nola banatu. Nahi izanez gero, biek hartu dezakete, batera edo bata bestearen atzetik, baina etenik gabeko aldietan eta adopzio edo harreari dagozkion hemezortzi asteak edo adopzio edo harrera anizkoitzarengatik hartu ditzaketen asteak inolaz ere gainditu gabe.

Nazioarteko adopzioaren kasuetan, adoptatzaileek adoptatutako haurraren sorterrira joan behar dutenean alde aurretik, atal honetan kasu bakoitzerako aurreikusitako baimena adopzioa gauzatzeko ebazpena eman baino lau aste lehenago har daiteke gehienez ere.

Aurreko ataletan araututakoarekin bat etorritik, aitak, dagokion baimenetik gutxienez lau aste hartzea erabakitzen badu, beste bi aste gehiago hartzeko eskubidea ere izan go du.

Oporraldia seme edo alaba hartu edo adoptatzeagatik baimenari erantsi dakioke, oporrei dagokien egutegiko urtea bukatu bada ere. Baldintza bakarra, baimenaren segidan, etenik egin gabe, hartzea da.

Bestalde, seme edo alaba hartu edo adoptatzeagatik baimenak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izango dira (ama funtzionarioak eskatzen duen moduan), betiere zerbitzuaren beharrek aukera ematen badute, Lana eta familia bateragarri egiteko neurriak buruzko urtarrilaren 30eko 180/2004 Errege Dekretuan xedatutakoaren baldintzen arabera.

5.- EDOSKITZE-BAIMENA

Langileak lanean ordubeteko etenaldia egiteko eskubidea izango du hamabi hilabete baino gutxiagoko seme/alaba bakoitzeko; denbora hori bi zatitan bana dezake. Nahi izanez gero, horren ordez ohiko lanaldia ordubete murriztu dezake edo, bestela, erditzeagatik baimenari dagokion denbora pilatu. Horretarako, kontuan hartu behar da benetako lanegunetako orduak bakarrik zenbatu daitezkeela. Hori dela-eta, funtzionarioak eskaera egiten duenean, hamabigarren hilabetea bete arte geratzen den denbora-tartean lizentzia, baimen, opor edo eszedentziarik eskatuko duen jakinarazi beharko du, aldi horiek zenbaketatik salbuesteko.

Edoskitze artifizialaren kasuan, lanaldia eten edo murrizteko eskubidea beste gurasoari eman dakioke, horrek eskatzen eta justifikatzen badu, eta ama langilea dela eta baimena hartzeari uko egiten diola edo hartu ezin duela frogatu ondoren.

6.- AITATASUN-BAIMENA

Aitak edo beste gurasoa denak, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera seme edo alaba jaio, adoptatu edo harreraren hartzeagatik egutegiko bata bestearen atzeko hogeita zortzi eguneko baimena edukitzeko eskubidea izango du, umea jaio, harreraren hartzeko erabaki administratibo edo judiziala eman edo egun osoko erregimenean adopzioa gauzatzeko ebazpen judiziala ematen den egunetik aurrera. Horretarako, jaiotza-agiaren edo familia-

liburuaren, harreraren ebazpen administratibo edo judizialaren, edo adopzioa gauzatzeko ebazpenaren fotokopia aurkeztu beharko da.

7.- BATAIO ETA JAUNARTZEETARA JOATEKO BAIMENA

Bigarren mailara arteko ondorengoen (seme-alabak eta bilobak) bataioaren edo jaunartzearen kasuan, aitak, amak eta aiton-amonek, aipatutako ekitaldia gertatzen den egunean baimen ordaindua izateko eskubidea izango dute, egun hori lanegun antolatuarekin bat badator edo bezperarako gaueko txanda planifikatuta baldin badago. Horretarako, dagokion aitopen-ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Beste erlijio-konfesio batzuetan antzekoak diren ospakizunei ere aplikatuko zaie baimen hori, Espainiako estatuak lankidetzeta-hitzarmena izenpetuta badauka haiekin.

Horiek izapidetzeko, zerbitzuko beharizanei buruz bulego edo zerbitzu judizialaren arduradunak aurretik egindako txostena behar da, eta baiezkoa emateko, beharizan horiek behar bezala beteta utzi eta baimena eragin duen gertakaria egiaztatu beharko da.

8.- AHAIDEEN GAIXOTASUN LARRI EDO OSPITALERATZEAGATIKO BAIMENA

Odol edo ezkontza bidezko 2. mailara arteko ahaideen gaixotasun larri justifikatu edo ospitaleratzeagatik, funtzionarioek bi lanegun hartzeko eskubidea dute. Baimen hori bost lanegunekoa izango da gaixotasun larria duena edo ospitalean dagoena ezkontidea, izatezko bikotekidea edo seme/alaba denean.

Baimena eragin duen gertakaria langilearen ohiko bizilekutik 150 km baino urrutirago gertatzen bada, baimenari egutegiko bi egun gehiago erantsi dakizkioke (egun bat joateko eta beste bat etortzeko). Bi egun horiek baimenarekin etenik egin gabe hartu behar dira .

Lehenengo baimena bukatzen denetik bata bestearen segidako 30 egun pasatu eta oraindik ere gaixotasun larriak edo ospitaleratzeak jarraitu egiten badu, iraupen bereko beste baimen bat hartzeko eskubidea izango dute funtzionarioek. Alabaina, bigarren baimenean ezin izango dira joan-etorrietarako bi egunak hartu.

Aldi horiei, beste hiru egun gehitu dakizkieke, baina errekuperatu beharrekoak izango dira. Erabilitako denbora hiru hilabeteko epean errekuperatu beharko da, ordutegi malguaren kargura eta errekuperatzea zein egun zehaztuz egingo den alde aurretik ordutegi-kontrolaren arduradunei jakinarazita.

Oro har, ahaidearen gaixotasun larri edo ospitaleratzeagatiko baimena ahaidea ingresatzen den egunean hasiko da. Hala ere, gaixotasun larriaren edota luzaroko ospitaleratzearen kasuan, baimena gertakari eragilearen lehen egunean baliatzea ez da ezinbestekoa izango; egun horiek elkarren segidan edota aldizka balia daitezke ospitaleratzeak dirauen denboraldian zehar, interesdunak eskatutako moduan, betiere ospitaleratze horrek dirauela egiaztatzen bada.

Ospitaleratzearen denboraldia gaixotasun larri edo ospitaleratzeagatiko baimenarena baino motzagoa den kasuetan, eta larritasun-egiaztagiririk ez badago, eraginpekoaren ahaideak benetan ospitalean emandako egunetara murriztuko da baimen hori.

Baimen-eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira: eskatzen den ahaidetasun-harremana egiaztatzen duen agiriaren edo agirien fotokopia, ospitaleratzearen justifikagiria

edo gaixotasunaren larritasuna egiaztatzen duen mediku-txostena, eta, kasuaren arabera, eskatzailearen errolda-ziurtagiria.

9.- AHAIDEEN HERIOTZAGATIKO BAIMENA

Odol edo ezkontza bidezko 2. mailara arteko ahaideen heriotzarengatik, hiru lanegun hartzeko eskubidea izango dute funtzionarioek. Baimen hori bost egunekoa izango da hildakoa ezkontidea, izatezko bikotekidea, semea edo alaba bada.

Baimena eragin duen gertakaria langilearen ohiko bizilekutik 150 km baino urrutirago gertatzen bada, baimenari egutegiko bi egun gehiago erantsi dakizkioke (egun bat joateko eta beste bat etortzeko). Bi egun horiek baimenarekin etenik egin gabe hartu behar dira.

Heriotzagatiko baimena ahaidea hiltzen den egunean hasiko da. Alabaina, lanaldia oso-osorik bukatu ondoren gertatzen bada heriotza, salbuespena egingo da eta heriotzaren hurrengo lanegunean hasiko da baimena. Nolanahi ere, ahaideen heriotzagatiko baimenak bukaera emango dio ahaide beraren gaixotasunagatiko baimenari.

Baimen-eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira: eskatzen den ahaidetasun-harremana egiaztatzen duen agiriaren edo agirien fotokopia, heriotza -agiriaren fotokopia edo heriotza egiaztatzen duen beste agiriren bat eta, kasuaren arabera, eskatzailearen errolda-ziurtagiria.

10.- BIZILEKUZ ALDATZEAGATIKO BAIMENA

Langileak, etxe-aldaketa egiteagatik bi laneguneko baimena hartzeko eskubidea dauka. Erroldatzen den egunetik hamabost egutegiko egunen epean hartu beharko ditu egun horiek, eta errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko du justifikagiri gisa.

Baimenak izapidetzeko, zerbitzuko beharriari buruz bulego edo zerbitzu judizialaren arduradunak aurretik egindako txostena behar da, eta baiezkua emateko, beharriari horiek behar bezala beteta utzi behar dira eta baimena eragin duen gertakaria egiaztatuta behar da.

11.- FUNTZIO SINDIKALAK, PRESTAKUNTZA SINDIKALEKOAK EDO LANGILEAK ORDEZKATZEKOAK EGITEKO BAIMENA.

Sindikatuaren edo langileen ordezkari-lanak egiten dituztenek dagokion baimena izateko eskubidea izango dute, indarrean dagoen araubidean ezarritako egoera, epe, baldintza eta aginduen eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioan sindikatu-eskubideei eta sindikaritzari buruzko esparru-ituna gorde eta argitaratzea xedatzen duen Lan zuzendariaren 1988ko azaroaren 7ko Ebazpeneko (1988/11/18ko EHAA, 217 zk.) estipulazioen arabera.

Edonola ere, akordioa negoziatzeko mahaian parte hartzen duten langileek baimen ordaindua hartzeko eskubidea dute, mahaiko idazkariak ofizialki dei egindako bileretara joateko, negoziazio kolektiboa burutu bitartean. Hori dela-eta, lanera ez doan langileak horren berri eman behar dio aurretiaz bere nagusiari.

Helburua ez betetzeagatik, administrazioaren bestelako eremuetan jarduera sindikalak egiteagatik, edo legezko bateraezintasuna dakartenak egiteagatik, ezeztatu egin ahal izango dira baimen sindikalak, ezarritako itunei jarraiki, eta eraginpean hartutako

sindikatuerei aldeztu aurretik kontsulta egin ondoren. Era berean, sindikatuaren edo interesdunaren beraren eskariz ere balio gabetu daitezke baimenak.

12.- ZENTRO OFIZIALETAN AZKEN AZTERKETAK ETA GAINONTZEKO BEHIN BETIKO GAITASUN- ETA EBALUAZIO-PROBAK EGITEKO BAIMENA.

Funtzionarioek ikastetxe ofizial edo homologatuetan azterketak egitera joateko eskubidea daukate. Horretarako baimena emango zaie, azterketa eta gaitasun-probak egin ahal izateko behar duten gutxieneko denbora nahikoa, alegia. Egin beharreko azterketa bakoitzeko, gehienez ere egutegiko egun bat emango zaie, bai ohiko deialdietan eta bai ezohikoetan. Kasu guztietan, azterketa ra joan izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da eta agiri horretan datu hauek azaldu beharko dute: lekua, eguna, ordua, ikastetxea eta azterketaren irakasgaia.

Bestalde, baimen ordaindua emango zaie langileei beren kidegoko hautaprobei dagozkien ariketak egiteko: bitarteko funtzionarioei, izendapena duten kidegoan sartzeko deialdietan aurreikusitako probetarako; karrerako funtzionario i zanez gero, berriz, barne-sustapenaren bidez sartu nahi duten kidegoan sartzeko deialdietan. Kasu guztietan, azterketara joan izanaren justifikagiria aurkeztu beharko da eta agiri horretan datu hauek azaldu beharko dute: lekua, eguna eta ordua.

Azterketak nahitaez (funtzionarioak aukeratu gabe) azterketagilearen bizilekutik 150 km baino urrutirago egin behar izanez gero, baimenari egutegiko bi egun gehiago erantsi dakizkioke (egun bat joateko eta beste bat etortzeko). Bi egun horiek baimenarekin etenik egin gabe hartu behar dira.

Bestalde, baimena emango da administrazioen eta erakunde publikoen kidegoetan eta eskaletan sartzeko deialdietan jasotako hautaketa-saioetako ariketak egiteko. Baimen hori probetan parte hartzeko behar adina denborarako emango da. Baimenari dagokion denborak ez du ordainsaririk jasotzeko eskubiderik emango. Denbora hori errekuperatu egin beharko da ordutegi malguaren kargura eta errekuperatzea zein egun zehatzetan egingo den aldeztu aurretik ordutegi-kontrolaren arduradunari jakinarazita eta betiere zerbitzuko premiak betez.

Orientazio orokor gisa, adierazi beharra dago azterketak herrian bertan, eta egun balio gabean edo funtzionario eskatzailearen lan-ordutegitik kanpo egin behar izanez gero, baimena ematea ez dela bidezkoa izango.

“Azken azterketa” eta “behin betiko gaitasun- eta ebaluazio-probatzat” hartuko dira programaren zati bat bukatzeko partzialak edo amaierakoak diren azterketak ere.

Ez da baimenik emango azterketa edo proba hauetara joateko:

- Zentro ofizialetan egiten ez direnak
- Lan-politsetan sartzekoak direnak

13.- MEDIKUAREN KONTSULTA, TRATAMENDU ETA AZTERKETETARA JOATEKO BAIMENA.

Norberaren premiak direla-eta, lan-orduetan kontsulta, tratamendu eta mediku-azterketak egiteko baimena izango dute funtzionarioek, joateko beharra behar bezala justifikatuta dagoenean, eta zentroetan dagoen kontsulta-ordutegiak lan-orduz kanpo joateko aukerarik ematen ez duenean. Baimen hau gehienez ere lau ordukoa izango da —behar bezala egiaztatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik—.

Haurdun dauden langileek, haurra jaio aurreko azterketak egitera eta erditzea prestatzeko teknikak ikastera joateko, behar-beharrezko denborako baimen ordaindua izango dute.

Horretarako, frogatu egin behar da horiek lanaldiaren barruan egitekoak direla, e ta joan izana behar bezala egiaztatu beharko da.

Era berean, funtzionarioek bigarren mailara arteko odol edo ezkontza bidezko ahaideei (edo beste maila urrunagoko ahaideei, elkarrekin biziz gero) lagundu ahal izango diete medikuen kontsultetara, tratamendu etara eta azterketetara, lagundu beharreko pertsonen egoerarengatik beharrezkoa bada, eta zentroek lan-orduz kanpo joateko aukerarik ematen ez badute. Hori guztia, ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da. Horretarako erabilitako denbora hilabete bateko epean errekuperatu beharko da.

Eskubide hauek justifikatu egin behar dira, kontsulta, tratamendu edo mediku -azterketara gaixo edo laguntzaile bezala joan izanaren ziurtagiriaren bidez. Ziurtagiriak , erietxera sartu eta ateratzeko orduak adierazi behar ditu.

14.- BETEBEHAR PUBLIKO EDO PERTSONAL SAIHESTEZINAK EGITEKO EZINBESTEKOA DEN DENBORA HARTZEKO BAIMENA.

Betebehar publiko edo pertsonal saihestezinak egiteko, langileek behar besteko denborako baimen ordaindua hartzeko eskubidea izango dute, zeregin horiek lan-orduz kanpo egin ezin badira. Baimenerako arrazoia dagokion bertaratze-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, eta lan-lekura sartu eta irteteko orduak adierazi beharko dira baimen-eskaeran.

Ebazpen honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira betebehar publiko edo pertsonal saihestezintzat:

- a) Epaitegien, komisarien eta beste administrazio-organoen zitazioak.
- b) NANA eta pasaportea egitea, betiere lan-orduz kanpo joan ezina egiaztatuz gero.
- c) Gida-baimena eskuratzeko azterketa edo baimen hori berritzea.
- d) Odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideei, minusbalotasun psikiko edo fisikoren bat badute, beren egoerari dagozkion izapide zehatzak egiten laguntzea. Halakotzat hartuko dira artikuluko honetako a eta b idatz-zatietan adieraziak.
- f) Zinegotzi, diputatu, batzar nagusietako kide edo legebiltzarkide izateagatik gobernu-organoen edo horien menpeko batzordeen bileretara joatea.

Ez da inolaz ere baimenik emango errenta-aitorpena egitera joateko.

15.- HAUTETSI-KARGUAREN ZEREGINAK BETETZEKO BAIMENA.

Instituzioetan hautabidezko kargudun diren funtzionarioek beren egoeratik eratorritako funtzioak —ebazpen honetan araututako betebehar publiko edo pribatu saihestezinetarako baimenean sartzen diren zereginak izan ezik— betetzeko baimena izango dute, horretarako behar den denboran, beti ere guztira urteko lanaldiaren ehuneko hamar gainditzen ez badute. Baimenari dagokion denborak ez du inolako ordainsari rik jasotzeko eskubiderik emango, eta dagokion denbora errekuperatu egin beharko da.

Baimen hau eskatzeko, instituzioetan hautabidezko kargua duela egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko du funtzionarioak.

16.- GAIXOTASUN KRONIKOAK EDO MUGITZEKO ARAZOAK DITUZTEN AHAIDEAK ZAIITZEKO BAIMENA.

Mugitzeko arazoak dituen edo osasun-txostenaren bitartez egiaztatutako gaixotasun larri iraunkorra duen odol edo ezkontza bidezko 2. mailara arteko ahaideak —edo, elkarrekin biziz gero maila urrunagoko ahaideak— zaindu behar dituen langileak, urtean gehienez berrogeita hamar orduko baimen ordaindua izango du.

Oro har, egunean bi ordu erabili ahal izango dira ordu -kreditu horretatik, hain zuzen ere, lanera sartzean edo lanetik irteetan. Baimen hau bateraezina izango da ebazpen honetako 17.2 atalean adierazitako lehen mailako ahaideen gaixotasun oso larriagatik lanaldi-murrizketarekin.

Baimena urtean gehienez berrogeita hamar ordukoa da. Kopuru hori dedikazio osoko lanaldi osoari dagokio; hortaz, baimen honen kontura hartu daitekeen ordu -kopurua benetan egindako lanaldiaren proportzionala izango da. Salbuespen gisa, egun osotan ere baliatu ahal izango da baimen hau, horretarako premia dagoela justifikatzen bada alde zurretik.

Nolanahi ere, modu ordenatuan eta Bulego Judizialaren arduradunarekin koordinatuz hartu behar da baimen hau, beti ere jendea eta profesionalak hartzeko ordutegia nahiz entzunaldi publikorako ezarritako ordutegia errespetatuz.

Eskaera izapidetzeko, ahaideak mugitzeko dituen zailtasunak edota haren gaixotasun larri iraunkorra egiaztatzen duen mediku -txostena aurkeztu behar da eskabidearekin batera.

Baimen hau emateko kontuan hartu ziren baldintzetakoren bat aldatuz gero, baimena ikuskatu ahal izango da. Baimena ematen denetik urtebete pasa ondoren luzapena eskatu nahi izanez gero, eskaera aurkeztu beharko da, familiako medikuak ahaideari buruz egindako txosten eguneratuarekin batera.

17.- LANALDIA MURRIZTEKO BAIMENA

Epigrafe honetan zehaztutako arrazoiengatik eta zenbatekoarekin, lanaldia murrizteko baimena eskatu ahal izango dute langileek. Baimen horrek, edozein motatakoa izanda ere, kontzeptu guztietako ordainsarien murrizketa proportzionala eragingo du. Hortaz, hartzekoen murrizketa proportzionala egingo da eta opor, lizentzia eta baimenatarako sortutako orduena ere bai. Horrela, opor, lizentzia eta baimen-egunen baimenaldia bat etorriko da baimena eragin duen aldian egindako benetako lanaldiarekin.

Horiek izapidetzeko, zerbitzuko beharrezanez buruz bulego edo zerbitzu judizialaren arduradunak zurretik egindako txostena behar da, eta baiezkota emateko, beharrezan horiek behar bezala beteta utzi behar dira eta baimena eragin duen gertakaria egiaztatuz behar da.

Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ezarritako irizpideak jarraituz, murrizketa-koefizientearen aldaketak benetan lan egindako egunekin bat etorri beharko du; ezingo da aldatu opor, lizentzia eta baimenen kasuan.

17.1.- LEGEZKO ZAINZARI LOTUTAKO ARRAZOIENGATIK LANALDIA MURRIZTEKO BAIMENA

Langileak hamabi urtetik beherako haurren bat, jarduera ordaindurik egiten ez duen gorputz-, adimen- edo zentzumen-elbarriren bat, edo gaixotasun larri iraunkorra izan eta berekin bizi den ahaideren bat badu bere legezko zaintzapean, ohiko lanaldia murrizteko baimena eskatu ahal izango du. Murrizketa hori lanaldiaren zortzirenekoa, bostenekoa,

herenekoa edo erdikoa izango da eta horrek lansariaren atal guztietan murrizketa proportzionala ekarriko du.

Urritu fisiko edo psikikoa izateagatik jasotzen den pentsioa ez da parekagarria jarduera ordaindua egitearekin. Hortaz, halako perts onaren baten legezko zaintza duenak lanaldia murrizteko eskubidea dauka.

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira, kasuaren arabera: adingabearen inskripzioa jasotzen duen familia-liburuaren fotokopia, elbarritasunaren ziurtagiria eta jarduera ordaindurik ez egitearen zinpeko aitortpena; edo gaixotasuna egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria edo legezko zaintza egiaztatzen duen agiria, eta errolda-ziurtagiria.

17.2.- LEHEN MAILAKO AHAIDEEN GAIXOTASUN OSO LARRIA RENGATIK LANALDIA MURRIZTEKO BAIMENA.

Lehen mailakoa edo, elkarrekin biziz gero, urrunagokoa den eta oso gaixo dagoen ahaidea zaintzeko, langileek lanaldia gehienez erdira arte murriztu dezakete, etenik gabe eta gehienez ere hilabetez. Lanaldi hori ordaindua izango da baina bateraezina ebaz pen honetako 16. xedapenean aipatutako gaixotasun kronikoak edo mugitzeko arazoak dituzten ahaideak zaintzeko baimenarekin.

Eskaerarekin batera, gaixotasun oso larria egiaztatzen duen mediku-txostena eta, kasuaren arabera, errolda-ziurtagiria aurkeztu behar dira.

17.3.- AURRE-ERRETIROARENGATIK.

Funtzionarioei nahitaezko erretiroko adinera iristeko bost urte baino gutxiago geratzen zaizkienean, lanaldia erdira arte murriztea eskatu ahal izango dute, betiere zerbitzuaren beharrek aukera ematen badute. Kasu horretan, ordainsariak proportzio berean murriztuko dira.

17.4.- FUNTZIONARIOEK OSATZEKO DUTEN BEHARRARENGATIK.

Lanaldiaren murrizketa hau (erdira artekoa, ordainsariak ere proportzio berean murriztuta) gaixotasunen ondorioz osatzeko prozesuak behar dituzten langileek eskatu eta lortu ahal izango dute aldi baterako, betiere zerbitzuaren beharrek aukera ematen badute eta langilea gaixotasunaren ondoriozko osatze-prozesuan dagoela egiaztatzen duen mediku-ziurtagiria tarteko bada.

17.5.- NORBERAREN INTERESAGATIK.

Karrerako funtzionarioek, zerbitzu aktibora sartu edo bueltatzen direnetik bi urte pasatu ondoren, betetzen duten lanpostuari dagozkion funtzioekin bateragarria bada eta, nolana ere, entzunaldi publikorako finkatutako ordutegia errespetatzen badute, lanaldiaren erdia, herena, bostena edo zortzirena murriztea eskatu ahal izango dute. Hala egitekotan, ordainsari guztiak (hirurtekoak barne) proportzio berean murriztuko dira. Murrizketak gutxienez urtebete iraungo du eta etenik gabea izango da; ba imen hau etenez gero, nahiz eta urtea edo baimenaren aldia agortu ez, ezin izango da beste baimenik eskatu bukatzen denetik bost urte pasatu arte.

Norberaren interesagatik eskatutako lanaldi-murrizketa emateko, zerbitzuaren beharrak hartuko dira kontuan, eta murrizketa hori bateraezina izango da murrizten den ordutegian edozein motatako jarduera (ordaindua zein ordaindu gabekoa) egitearekin.

17.6.- HAUTABIDEZKO KARGUA IZATEAGATIK DAGOZKION ZEREGINAK BETETZEKO

Instituzioetan hautabidezko kargua duten funtzionarioek ohiko lanaldia murrizteko baimena hartu dezakete; aukera daukate zortziren bateko, bosten bateko, heren bateko edo erdiaren murrizketa hartzea. Murrizketarik hartuz gero, lansariaren atal guztietan murrizketa proportzionala egingo du.

Eskaerarekin batera, funtzionarioak instituzioetan hautabidezko kargua duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

17.7.- IKASKETA OFIZIALAK EGITEKO

Hala erabakitzen den kasuetan, ikasketa ofizialak egiteko, lanaldiaren zortziren bateko, bosten bateko edo heren bateko murrizketa hartu ahal izango da ordainsarien murrizketa proportzionalarekin, ikasturte ofizialak dirauen bitartean.

XII.- LIZENTZIAK

Funtzionarioek lizentzia hartzeko eskubidea izango dute justifikatutako arrazoi hauengatik:

- 1.- Norberaren edo ahaideen ezkontzagatiko lizentzia.
- 2.- Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak egiteko eta talde-ekitaldi zientifiko, tekniko edo profesioaletara joateko lizentzia.
- 3.- Norberaren beharretarako lizentzia:
 - 3.1.- Ikasketa ofizialak egiteko
 - 3.2.- Garapen-bidean dauden herrialdeetan eginkizunen bat egiteko, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen babespean
 - 3.3.- Norberaren beharretarako (karrerako funtzionarioentzat)
- 4.- Praktiketako funtzionario izendatua izateagatiko lizentzia.
- 5.- Gaixotasun edo istripuagatiko lizentziak.

1.- NORBERAREN EDO AHAIDEEN EZKONTZAGATIKO LIZENTZIA.

Funtzionarioek egutegiko hogei eguneko baimena izango dute ezkontzeagatik. Baimen osoa edo zati bat ezkontza ospatzeko eguna edo izatezko bikoteen erregistroan inskripzioa egiteko eguna baino lehen edo ondoren hartu ahal izango da, baina edonola ere, ezkontzaren eguna epealdiaren barruan geratuko da.

Baimen hau oporraldiari erantsi daskioke, oporren aurretik edo ondoren, gutxienez hamabost egun lehenago Bulego Judizial eta Fiskaleko zuzendariari jakinarazita.

Ezkontza edo bizikidetza egonkorraren hasiera dela -eta, ezin izango da beste lizentzia bat hartu sei urte igaro arte, eta inolaz ere ez bikoteko kideak berberak direnean.

Langilearen gurasoak, aitagarreba-amagarrebak, anai-arrebak, koinatu-koinatak, seme-alabak, bilobak edota aiton-amonak ezkontzen direnean, langileak egutegiko egun bateko lizentzia baliatu ahal izango du, ezkontza-eguna, hain zuzen ere. Ezkontza langilearen ohiko bizilekutik 150 km baino urrutirago baldin bada, baimenari egutegiko bi egun gehiago

erantsi dakizkioke (egun bat joateko eta beste bat etortzeko). Bi egun horiek baimenarekin etenik egin gabe hartu behar dira.

Lizentzia honetarako behar diren ziurtagiriak: senar-emazteak Familia Liburuan inskribatu izanaren fotokopia edo Izatezko Bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoari jarraiki Izatezko Bikoteen Erregistroak egindako inskripzio-ziurtagiria eta, behar izanez gero, ahaidetasuna egiaztatzen duen ziurtagiria. Joan-etorrietarako luzapena aplikatzeko, eskatzailearen errolda-ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.

2.- PRESTAKUNTZA- ETA HOBEKUNTZA- IKASTAROAK EGITEKO ETA TALDE- EKITALDI ZIENTIFIKO, TEKNIKO EDO PROFESIOALETARA JOATEKO LIZENTZIA

Laneko zereginekin edo betetzen den lanpostuarekin lotura zuzena duten prestakuntza eta lanbide-hobekuntzako ikastaroak egiteko lizentziak eman ahal izango dira, baita talde-ekitaldi zientifiko, tekniko edo profesioaletara joateko ere.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoan zein estatuko gainerako beste lurraldeetan dauden prestakuntzako ikastegi ofizialetan onartzen dituzten langileei baimena eman ahal izango zaie lanpostuaren eginkizunekin zerikusi zuzena duten lanbide-hobekuntzako ikasketak egiteko.

Gainera, Justizia eta Herri Administrazio Sailak antolatu eta Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzak baimentzen dituen prestakuntza-ikastaro eta bestelako prestakuntza-jardueretara joateko baimen bat izateko eskubidea izango dute funtzionarioek.

Baimen honek araudiz ezarritako zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainak eskuratzeko eskubidea emango du.

Auzitegiko Medikuen Kidegoko funtzionarioek jasotzen duten prestakuntza espezializatua dela-eta, Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzak baimendutako prestakuntza-jarduerak —funtzionario horiek betetzen duten lanpostuko zereginekin lotura zuzena dutenak— atal honetan sartutzat jotzen dira.

2.- Era berean, kongresu, mintegi, sinposio, topaketa, eztabaida-saio, solasaldi, hitzaldi, bilera, jardunaldi eta bestelako talde-ekitaldi zientifiko, tekniko edo profesioaletara joateko baimen ordaindua eman ahal izango zaie langileei, zerbitzuaren beharrianak kontuan izanik eta Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzak aurretik baimendu ondoren.

Langileak bere ekimenez eskatzen duen baimena baimen ordaindua izango da lehenengo bost egunetan, baina muga horretatik gorakoak ez dira ordainduko. Bestalde, ez zaio inolako kalte-ordainik ordainduko, eta dietak, bidaia-sariak, egonaldiak edo izena ematea interesdunaren konturakoak izango dira.

Baimenaren iraupena gertakariaren iraupenak zehaztuko du, eta gertakari horrek, betiere, funtzionarioaren kidegoari dagozkion zereginekin zerikusia izan behar du eta zeregin horiek betetzeko prestakuntza osatu behar du. Baimena, zerbitzuko premiek uzten badute eta aurrekontu-baliabiderik baldin badago emango da.

Nolanahi ere, gertakaria hasi baino hamabost egun lehenago egin behar da eskaera. Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira: programaren kopia (antolatzaileak zein diren, datak, ikastordu-kopurua eta ikastaroaren edukia adierazi behar ditu) eta zerbitzuko premiak behar bezala beteta gelditzen direla esanez bulego judizial eta fiskalaren arduradunak egindako aldeko txostena. Baimena emateko, beharrian horiek behar bezala beteta utzi behar dira eta baimena eragin duen gertakaria egiaztatu behar da.

3.- NORBERAREN BEHARRETARAKO LIZENTZIA.

Lizentzia hau, bere edozein modalitatetan, oso ongi justifikatutako arrazoiaren kasuan izan ezik, urtebete segidan lan egin ondoren soilik eskatu ahal izango da. Lizentzia izapidetzeko, zerbitzuko beharrezan buruz bulego edo zerbitzu judizialaren arduradunak aurretik egindako txostena behar da, eta baiezkota emateko, beharrezan horiek behar bezala beteta utzi behar dira eta baimena eragin duen gertakaria egiaztatuta behar da.

Norberaren beharretarako emandako lizentziak ez du inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik emango. Lizentziaren aldia oporrak kalkulatzeko zenbaketatik salbuetsiko da, eta lizentziaren iraupen metatua lau hilabetekoa izango da gehienez, bi urtetik behin. Bi urteak lizentzia hartzen den egunetik hasiko dira zenbatzen; hori horrela, segidako lau hilabeteko aldirako ematen bada, ezin izango da beste bat eman bi urte igaro arte, lehenengoaren hasierako egunetik kontatzen hasita. Aldi laburragoetarako eskaeren kasuan ere, lizentzia hartzen den egunetik hasiko da epea zenbatzen, eta, bi urteko epearen barruan, norberaren beharretarako beste baimen batzuk eman ahal izango dira, lau hilabeteak osatu arte.

Zenbaketa horren ondorioetarako, hasieratik bukaera arteko egunak hartuko dira lizentziako eguntzat, lanegunak ala jaiegunak diren kontuan hartu gabe. Lizentzia denboraldi laburretan zatitu ahal izango da, lau hilabeteko gehieneko iraupenera iritsi arte. Horrela, beraz, kasu gehienetan larunbateko eta igandeko lansariak osorik ordainduko dira. Alabaina, egun horiek ordainduta egon ohi dira bestela ere, hain zuzen ere aurreko egun baliodunetan lan egin izanagatik. Horren ondorioz, konparaziozko bidegabekeria gertatzen da hilabete osoetarako edo zatikatu etarako emandako lizentziekiko, kasu horietan larunbateko eta igandeko ordainsaria barne hartzen baita deskontuan.

Lizentzia hau emateko kasu guztiei tratamendu berdina emateko, honako formula hau aplikatuko da:

Hilabeteko ordainsari osoa + Aparteko orda insariak

30

360

Lehen batugaia lizentzia hartzen den hilabeteko nominatik deskontatuko da eta, bigarrena, berriz, hilabete horren ondoren ordaindu beharreko lehen aparteko ordainsaririk. Emaizta 1,40rekin biderkatuko da (1 eguneko ordainsaria da, eta 0,40, berriz, larunbateko eta igandeko zati proportzionala). Ondorio ekonomikoetarako, egun baliodunak baino ez dira hartuko lizentzia-eguntzat.

3.1.- NORBERAREN BEHARRETARAKO LIZENTZIA, IKASKETA OFIZIALAK EGITEKO

Lizentzia ikasketa ofizialak egiteko eskatzen bada, bata bestearen segidako lau hilabete eman ahal izango dira gehienez, behin bakarrik eta urteroko maiztasunarekin.

Eskabidearekin batera, ikastetxe ofizialak egindako ziurtagiria aurkeztu behar da, eskatzailea ikasketa ofizialak egiten ari dela egiaztatzen duena, alegia.

3.2.- NORBERAREN BEHARRETARAKO LIZENTZIA, GARAPEN-BIDEAN DAUDEN HERRIALDEETAN EGINKIZUNEN BAT EGITEKO, GARAPENERAKO GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEN BABESPEAN

Garapen-bidean dauden herrialdeetan eginkizunen bat egiteko eskatzen bada lizentzia (garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen babespean), bost urtero bi urte metatu ahal izango dira gehienez, eta hartu ahal izango den gutxieneko aldia lau hilabetekoa izango da.

Eskabidearekin batera, gobernuz kanpoko erakundeak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

3.3.- NORBERAREN BEHARRETARAKO LIZENTZIA (KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT)

Era berean, sei hilabeteko edo urtebeteko baimen ordaindu gabea eskatu ahal izango dute karrerako funtzionarioek. Baimen hori bateraezina izango da beste edozein jarduera ordaindurekin. Kasu honetan, ezin izango da beste eskaerarik egin lan egindako bost urte metatu arte (lizentzia amaitzen denetik aurrera kontatzen hasita).

4.- PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIO IZENDATUA IZATEAGATIKO LIZENTZIA

Hautaketa-probak gainditu ondoren praktiketako funtzionario izendatzen dituzten eta Justizia Administrazioan funtzionario gisa lan ordaindua egiten duten pertsonak aparteko lizentzia bat eskatzeko eskubidea izango dute egoera horrek dirauen bitartean, eta indarrean dagoen araudiak praktiketako funtzionarioentzat ezarritako ordainsariak jasoko dituzte.

Eskabidearekin batera, Justiziako Estatuko Idazkaritzak praktiketako funtzionario izendatzeko emandako ebazpena aurkeztu beharko da.

5.- GAIXOTASUN EDO ISTRIPUAGATIKO LIZENTZIAK.

Zereginak normal betetzea eragozten duen gaixotasunak edo istripuak gaixotasun -lizentzia eskatzeko eskubidea emango du.

Funtzionarioek, alde batetik, lanetik faltatzen diren eguneko lanaldi-garaian jakinarazi behar diote bulego edo zerbitzu judizialaren arduradunari gaixo daudela eta ezin dutela lanera joan eta, bestetik, Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzari eskatu beharko diote, bulego edo zerbitzu judizialaren bidez, gaixotasun -lizentzia. Horretarako, aldi horretako gaixotasuna egiaztatzen duen mediku-txostena ere aurkeztu beharko dute. Gaixotokiak lau egun baino gutxiago irausten badu, ez da baja -parterik aurkeztu beharko eta, ondorioz, alta-parterik ere ez. Alabaina, gaixotasunak lau egun edo gehiago iraungo duela aurreikusiz gero, lanetik falta izan diren lehenengo egunari dagokion medikuaren baja-partea aurkeztu beharko dute funtzionarioek laugarren egunean.

Gaixotasuna benetakoa dela eta gaixoak lanera ezin duela joan egiaztatzen duen mediku -ziurtagiria edo bajako partea aurkeztu ondoren emango dira hasierako lizentzia eta luzapenak.

Hasierako lizentzia hasierako bajako partearen egunetik (lanera joan gabeko lehen egunetik) emango da, medikuak sendatzeko aurreikusten duen denborarako, baina hamabost egunerako gehienez. Gaixotasunak bere horretan jarraituz gero, hasierako lizentzia automatikoki luzatuko da baja berresteko partea aurkeztu ondoren, eta ondorioz gabe geratuko da sendatzeko aurreikusi den garaia baino lehen sendatzen bada gaixoa.

Hala ere, medikuak sendatzeko aurreikusi duen denboraren barruan sendatu eta lanera bueltatzen bada gaixoa, funtzionarioak, derrigor, berehala izapidetu beharko du lanera bueltatu aurreko eguneko alta-partea Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzan.

Prozesu patologiko beraren ondoriozko gaixotasun-lizentzien luzapenak 12 hilabeterako emango dira gehienez, eta beste sei hilabetez luzatu ahal izango dira, hilabete horien barruan langilea senda daitekeela eta alta medikoa jaso dezakeela uste denean. Epe horiek igaro ondoren, ezintasun iraunkorraren ondoriozko erretiroa edo medikuaren alta eman arte luzatuko dira gaixotasun-lizentziak, baina luzapenak ez ditu inola ere gaintutuko hasierako lizentzia eskatzen den egunetik 30 hilabete.

Ondorio horietarako, prozesu patologikoa beste bat denean gaixotasun-lizentzia lizentzia berritza joko da; berdin egingo da lizentziak gutxienez urtebetez eteten direnean ere.

Era berean, ezintasun iraunkorraren edozein maila ukatzea medikuaren altaren baliokidea izango da eta, hortaz, funtzionarioak bere lanpostura itzuli beharko du GSINek edo Justizia Ministerioko Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritza Nagusiak ezintasuna ukatzeko ematen duen akordioan azaltzen den egunean. Subsidiarioki, altarako datarik ezartzen ez bada, ezintasuna ukatzeko akordioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean itzuli beharko du lanera. Itzultzen ez bada, Botere Judizialaren Lege Organikoko 500.4 artikulua ezarritako deskontu automatikoa egingo zaio soldatan.

Funtzionarioa gaixotasun-lizentziarekin dagoen bitartean, lizentzia emateko arazoiek jarraitzen dutela egiaztatzeko prozesuaren berrikuspena egin dezala eskatu diezaiotke Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzak ikuskatzaitza medikoari. Bestela, gaixotasun edo istripuaren egoeraren jarraipena eta egiaztaketak Prebentzio Zerbitzuaren azterketaren bidez egin ahal izango du, gaixotasun-lizentziarekin dagoen langilearen osasun-egoera zein den jakiteko, langileari behar duen laguntza emateko eta langile hori lehenbailehen sendatzeko.

Langileak horrelako azterketak ez dituela pasako esaten badu, administrazioa ordaintzen ari zitaion laguntza ekonomiko osagarriak gal ditzake, aurretik idatziz entzunaldiaren izapidea egin ondoren.

Gaixotasun edo istripuagatik baimenarekin dagoela langileak norberaren edo besteren konturako lanak egiten baditu, administrazioa ordaintzen ari zitaion laguntza ekonomiko osagarriak jasotzeko eskubidea galduko du, eta lizentziarengatik jasotako zenbatekoak itzuli beharko dizkio administrazioari hilabeteko epean. Gainera, diziplina-espeditentea ireki ahal izango zaio.

Halaber, gaixotzea edo istripu-aldia nahita eta justifikaziorik gabe luzatzen duen langileak laguntza ekonomiko osagarriak jasotzeko eskubidea galduko du, eta besteak beste diziplinazko erantzukizuna eskatu ahal izango zaio.

Azkenik, indarrean dagoen arautegiaren arabera kasu bakoitzean aplika daitezkeen eskubide ekonomikoak emango dituzte gaixotasun-lizentziek.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 10a.

Rosa Gómez Álvarez
BULEGO JUDIZIAL ETA FISKALAREN ZUZENDARIA



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Justizia Sailburuordetza
Bulego Judizial eta Fiskalaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Viceconsejería de Justicia
Dirección de la Oficina Judicial y
Fiscal

LIZENTZIEN ETA BAIMENEN ESKABIDEA
SOLICITUD DE LICENCIAS Y PERMISOS

IZEN-ABIZENAK NOMBRE Y APELLIDOS:	
NAN / DNI:	
ORGANOA / ÓRGANO:	
LIZENTZIAREN EDO BAIMENAREN IZENA / NOMBRE DE LICENCIA O PERMISO: (1)		
.....		
HASIERA-DATA FECHA DE INICIO	AMAIERA-DATA FECHA FIN	
.....

Kontsulta medikoen, nahitaezko betebeharren edo azken azterketen kasuan / En el caso de consultas médicas, cumplimiento de deberes inexcusables o realización de exámenes finales:

HASIERA-ORDUA / HORA DE INICIO:

ARRAZOIA / MOTIVO

ARRAZOIA / MOTIVO: ESKATZAILEAREN SINADURA FIRMA DEL/DE LA SOLICITANTE	BULEGO JUDIZIALAREN ARDURADUNAREN, FISKALBURUAREN, AMEE-KO ZUZENDARIAREN EDO ZUZENDARIORDEAREN ONTZAT EMANA Vº Bº RESPONSABLE OFICINA JUDICIAL, FISCAL-JEFE, DIRECTOR O SUBDIRECTOR DEL IVML
Data / Fecha:	

Eskabidearekin batera, eta ahal den guztietan, lizentzia edo baimena eskatzeko arrazoia egiazta tzen duen ziurtagiria aurkeztu behar da. Ezin baldin bada, aurrerago aurkeztu beharko da. / Junto con la solicitud y siempre que sea posible, se acompañará justificante que acredite la circunstancia para la que se solicita la licencia o permiso. En caso contrario se deberá presentar a posteriori.